

DONOSTIAKO UDALA

Idazkaritza Nagusia

Hiriko hondakin solidoak biltzeko ordenantzaren aldatetaren behin betiko onespena.

Donostiako Udalak, 2010eko ekainaren 25ean egindako osoko bilkuran, Hiriko hondakin solidoak biltzeko ordenantzaren aldatetaren behin behingo onespena erabaki zuen eta informazio publikorako epea zabaldu zuen, edozein pertsonen egokitzat zituen iradokizunak eta alegazioak aurkezteko.

Epea amaituta ez da iradokizunik ezta alegaziorik ere aurkeztu eta ondorioz, Legea 7/1985, apirilaren 2ko Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzeko, 49 c) artikuluan agintzen dena aplikatuz, behin-behineko akordioa behin betiko bihurtu da.

Ados ez dagoenak bi hilabete du errekurtoa jartzeko Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailaren aurrean. Esandako epea argitalpen hau eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da.

Legea 7/1985, apirilaren 2ko Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzeko 70.2 artikuluan agintzen duena betez, bestetik, behin-betiko onartutako Estatutuak argitaratu ematera goaz.

Donostia, 2010eko urriaren 6a.—Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga, Udaltzaren Idazkari Nagusia.

(199114248)

(12151)

ERANSKINA

— 39. artikulua 1. atala aldatzea, egungo testuaren ordez hau jartzeko:

1. Herritarrek honelako hondakinak uzteko, hiria BI gunetan banatuko da: (Hiriko) Ekialdea eta Mendabaldea. Urumea ibaiak eta Begiristain doktorearen pasealekutik igarotzen den mugatze-lerroak banatuko dituzte bi gunek, Ordenantza honi erantsitako planoari jarraiki.

Hiriko Ekialdean bizi diren herritarrek egun hauetan utzi ahal izango dituzte hondakinak: Igande, astearte eta ostegunetan. Hiriko Mendebaldean bizi diren herritarrek egun hauetan utzi ahal izango dituzte: Astelehen, asteazken eta ostiraletan. Hondakinak uzteko ordutegia gaueko 21:30etik 22:30era bitartekoa izango da. Larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ez da honelako hondakinik utziko, biharamunean ez baita Udalaren bilketa-zerbitzurik izango.

— 50. artikulua aldatzea, egungo testuaren ordez honako hau jartzeko:

Alde Zaharrean, honelako hondakinak uzteko egutegia eta ordutegia hiriko Mendebaldeko ezarritako bera izango da.

— 34. artikulua 2. atala aldatzea, egungo testuaren ordez honako hau jartzeko:

Gainerako hondakinak uzteko hiriko hainbat gunetan dauden edukiontzia erabiliko dira: Edukiontzi arruntak edo orokorrak, bai lurpekoak, bai atzeko zein alboko karga-sistema dutenak, edota sistema pneumatiko automatizatuko buzoiak.

AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

Secretaría General

Aprobación definitiva de la modificación de la ordenanza de recogida de residuos sólidos urbanos.

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 25 de junio de 2010, acordó aprobar inicialmente la modificación de la Ordenanza de Recogida de Residuos Sólidos Urbanos y, al propio tiempo, abrir un periodo de información pública, a fin de que cualquier persona tuviese ocasión de formular alegaciones o sugerencias.

Finalizado el plazo no se presentaron sugerencias ni alegaciones y, en consecuencia, en virtud del art. 49 c) de la Ley 7/1985, se entiende aprobada definitivamente la citada modificación.

Este acuerdo pone fin a la vía administrativa y podrá ser impugnado directamente ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses. Este plazo se computará desde el día siguiente al de la publicación de este anuncio.

De acuerdo con lo dispuesto en el art. 70.2 de la citada Ley 7/1985, a continuación se procede a la publicación del texto íntegro del Reglamento aprobado.

Donostia-San Sebastián, a 6 de octubre de 2010.—El Secretario General del Pleno, Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga.

(199114248)

(12151)

ANEXO

— Modificar el apartado 1.º del artículo 39, sustituyendo la redacción actual por la siguiente:

1. Para el depósito de estos residuos por parte de los ciudadanos, la ciudad quedará dividida en dos zonas: Este y Oeste. La división entre las dos zonas quedará delimitada por el cauce del río Urumea y una línea divisoria que discurre por el P.º del Doctor Beguiristain, según el plano anexo a la presente Ordenanza.

Los ciudadanos residentes en la zona Este de la ciudad podrán realizar el depósito los siguientes días de la semana: Domingo, martes y jueves. Los ciudadanos residentes en la zona Oeste de la ciudad podrán realizar el depósito los siguientes días de la semana: Lunes, miércoles y viernes. El horario de depósito será desde las 21:30 hasta las 22:30, quedando exceptuados de depósito los sábados y los días 24 y 31 de diciembre, por cuanto en los días posteriores no habrá servicio municipal de recogida.

— Modificar el art. 50, sustituyendo la redacción actual por la siguiente:

En la Parte Vieja para este tipo de depósitos el calendario y el horario será el mismo que el establecido para la zona Oeste de la ciudad.

— Modificar el apartado 2.º del art. 34, sustituyendo la redacción actual por la siguiente:

Los residuos restantes se deberán depositar dentro de los contenedores comunes o generales de residuos de tipo soterrado, de carga trasera o lateral instalados en los diferentes lugares de la ciudad, o en los buzones del sistema neumático automatizado.

— 37. artikulua aldatzea, egungo testuaren ordez honako hau jartzeko:

Hondakin horiek egun bereko arratsaldeko 19:30etik 22:30era arteko ordu-tartean utziko dira, bilketa egiteko sistema pneumatiko automatizata erabiltzen duten hiriko gunee-tan izan ezik.

— 61. eta 62. artikulua aldatzea, egungo testuaren ordez honako hau jartzeko eta, horretaz gain, 63. artikulua indargabetzea:

61. artikulua. Bazterrera utzitako ibilgailuen hondakin-trataera.

Udal-agintaritzak ibilgailua Ibilgailuak Tratatzeko Zentro Baimendu batera eramateko agindu ahal izango du, hura suntsitu eta deskontaminatzeko:

a) Ibilgailua ibilgetu edo administrazioak bide publikotik kendu eta biltegian gorde zuenetik bi hilabete baino gehiago igarotakoan, baldin eta titularrak kontrako alegaziorik aurkeztu ez badu.

b) Toki berean aparkatuta bi hilabete gora egon bada eta bere kabuz mugitzea galarazten dioten kalteak baditu edo matrikula-plakarik ez badu.

62. artikulua. Ibilgailuaren suntsiketa ordeztea.

Egoki ikusiz gero, alkateak edo haren eskuordetzan ari den agintari eskudunak erabaki ahal izango du, ibilgailua suntsitu ordez, trafikoa zaintzeko eta kontrolatzeko zerbitzuaren esku uztea.

63. artikulua. Indargabetua.

— Ordenantzen 2. artikulua 2. atala aldatzea, i) letra gehitzeko:

i) Sorospen-etxe, ospitale, erietxe eta antzeko zentroetako hondakinak, martxoaren 26ko 76/2002 Dekretuak, EAeko hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzeko denak, 3. artikuluan hiri- edo udal-hondakinak gisa (I. taldea) sailkatzen dituenak.

— 3. artikulua 4. atala aldatzea, egungo testuaren ordez honako hau jartzeko:

4. Martxoaren 26ko 76/2002 Dekretuak, EAeko hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzeko denak, 3. artikuluan II. eta III. taldeetan sailkatutako hondakin sanitarioak.

— 3. artikulua aldatzea, 6. atal berri bat sartzeko; hala, egungo 6. atala aurrerantzean 7. atala izango da:

6. EAEn sortzen diren eta gizakiak jatekoak ez diren animalia-jatorriko azpiproduktuak eta sukalde-hondakinak, uzta-laren 5eko 139/2005 Dekretuan jasotzen direnak.

7. Hondakinaren izaera dela-eta edota egoera bereziei erantzuteko, udal-entitate eskudunak hala erabakitzen dituen hondakinak.

— 57. artikulua b) letra aldatzea, 3. atala gehitzeko:

b) Merkataritzako hondakinaren bilketan:

Egurrezko, kartoizko edo plastikozko fruta- eta barazki-kaxak, bai eta haietako hondakinak ere.

— Modificar el art. 37, sustituyendo la redacción actual por la siguiente:

Estos residuos se deberán depositar entre las 19,30 y las 22,30 horas del mismo día como límite horario, salvo en aquellas zonas de la ciudad donde la recogida se realice por el sistema neumático automatizado.

— Modificar los arts. 61 y 62 sustituyendo la redacción por la que se recoge a continuación, y derogar el art. 63:

Artículo 61. Tratamiento residual de vehículos abandonados.

La Autoridad Municipal podrá ordenar el traslado del vehículo a un Centro Autorizado de Tratamiento de Vehículos para su posterior destrucción y descontaminación:

a) Cuando hayan transcurrido más de dos meses desde que el vehículo fuera inmovilizado o retirado de la vía pública y depositado por la Administración y su titular no hubiera formulado alegaciones.

b) Cuando permanezca estacionado por un período superior a un mes en el mismo lugar y presente desperfectos que hagan imposible su desplazamiento por sus propios medios o le falten las placas de matrícula.

Artículo 62. Sustitución de la destrucción del vehículo.

En aquellos casos en que se estime conveniente, el Alcalde o autoridad competente por delegación, podrá acordar la sustitución de la destrucción del vehículo por la adjudicación a los servicios de vigilancia y control de tráfico.

Artículo 63. Derogado.

— Modificar el apartado 2.º del artículo 2 de la Ordenanza añadiendo una nueva letra i):

i) Los desperdicios de Casas de Socorro, Clínicas, Sanatorios y Centros análogos que estén exclusivamente definidos como residuos urbanos o municipales dentro del Grupo I del artículo 3 del Decreto 76/2002, de 26 de marzo, por el que se regulan las condiciones para la gestión de los residuos sanitarios para la Comunidad Autónoma del País Vasco.

— Modificar el apartado 4.º del artículo 3, sustituyendo la redacción actual por la siguiente:

4. Los residuos sanitarios incluidos en los Grupos II y III del artículo 3 del Decreto 76/2002, de 26 de marzo, por el que se regulan las condiciones para la gestión de los residuos sanitarios para la Comunidad Autónoma del País Vasco.

— Modificar el artículo 3 incluyendo un nuevo apartado 6.º; el actual apartado 6.º pasa a ser el nuevo apartado 7.º:

6. Los subproductos animales no destinados al consumo humano y a los residuos de cocina generados en la Comunidad Autónoma del País Vasco que se definen en el Decreto 139/2005, de 5 de julio.

7. Los residuos que la entidad local competente determine por su naturaleza o en atención a circunstancias especiales.

— Modificar la letra b) del artículo 57, incluyendo un nuevo párrafo tercero:

b) En la recogida de residuos en el ámbito del comercio:

Las cajas de frutas y verduras de madera, cartón o plástico, y sus desperdicios.

Arrandegietako edo salmentan nahiz banaketan aritzen diren merkataritza-saltokietako bilgarriak eta hondakinak, arrainen eta itsaski freskoen nahiz izoztutakoen salmentatik eratorriak.

EAEn sortzen diren eta gizakiak jatekoak ez diren animalia-jatorriko azpiproduktuak eta sukalde-hondakinak, uztailaren Seko 139/2005 Dekretuan jasotzen direnak.

— 58. artikulua 3. atalaren lehen paragrafoa aldatzea, egungo testuaren ordez honako hau jartzeko:

3. Jarraian aipatuko diren hondakinak merkatariek berek jasoko dituzte, San Markoseko zabortegira eraman daitezten:

— 70. artikulua 2. ataleko m) letra aldatzea, egungo testuaren ordez honako hau jartzeko:

m) Baimendutako altzari edo tresnak uztea, Ordenantza honetako 38., 39., 49. edo 50. artikuluetan jasotzen dena bete gabe.

— 70. artikulua 2. atalaren n) letra aldatzea, azken esaldia kentzeko («baldin eta horrek oinezkoen edo ibilgailuen joan-etorriak oztopatzen baditu»):

n) Saltokietako bilgarriak eta kartoizko kaxak uztea, Ordenantza honetako 40.2, 41.2 edo 51.1 artikuluetan jasotzen dena bete gabe.

Los embalajes y los desperdicios generados tanto por el comercio del pescado y del marisco fresco y congelado, que procedan de las pescaderías o de establecimientos comerciales de venta o distribución.

Los subproductos animales no destinados al consumo humano y a los residuos de cocina generados en la Comunidad Autónoma del País Vasco que se definen en el Decreto 139/2005, de 5 de julio.

— *Modificar la redacción del primer párrafo del apartado 3.º del artículo 58 sustituyendo la redacción actual por la siguiente:*

3. La retirada de los residuos que se indican a continuación se efectuará por los propios comerciantes con destino al vertedero de San Marcos:

— *Modificar la letra m) del apartado 2.º del artículo 70, sustituyendo la redacción actual por la siguiente:*

m) Efectuar depósitos de muebles o enseres autorizados con incumplimiento de lo establecido en los artículos 38, 39, 49 o 50 de la presente Ordenanza.

— *Modificar la letra n) del apartado 2.º del artículo 70, eliminando la última frase («siempre que dificulten el tránsito peatonal o de vehículos por dicha causa»):*

n) Depositar envoltorios y cajas de cartón procedentes del comercio con incumplimiento de lo establecido en los artículos 40.2, 41.2 o 51.1 de la presente Ordenanza.